

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



HERNANI-ASTIGARRAGA HERRIARTEKOA

Finalaren bila gaur Azkoitian, Hernani

Gaur jokatu du Hernanik, palaz, Herriarteakoaren semifinalerako bueltakoa. Azkoitian ariko dira, 19:00etan hasita, finalerako txartelaren bila. Lan zaila daukate hermaniarrek, joanekoan 1-2 galduta eta 12 tantoren desabantailarekin. Bihar, berriz, eskuzko finalerdie ekingo die Astigarragak, arratsaldeko 19:00etan Txomiñenen, Ataunen kontra. ||

HERNANI LITERATURA

Irakurketa Klubak, saioa gaur

Gaur egingo du seigarren saioa, Irakurketa Klubak, 17:30etan Udal Liburutegian. Maria Garcia Laderok gidatuta, 3-5 urteko haurrentzat eta gurasoentzat da, baina ez da tokirik geratzen. ||

HERNANI BERDINTASUNA

'Nik sinesten dizut' liburua aurkezteko zita, Biterin

Bihar egingo dute, 18:30etan Biterin, Samara Velte kazetari eta idazlearen liburuaren aurkezpena: *Nik sinesten dizut; bortxaketaren kultura eta San Ferminetako kasua*. Egilea bera egongo da aurkezpenean. ||

HERNANI FUTBOLA

Ate irekiak gaur, 2008ko mutilentzat

Aurreko ostegunean bezala, ate irekiak antolatu ditu gaur ere, CD Hernaniko futbol sailak, 2008an jaiotako mutilentzat. Zubipen, 17:00etan hasita. ||

HERNANI CHILLIDA-LEKU

'Erritu' ikuskizuna, hurrengo ostiralean

Udako solstizioa ospatzeko, *Erritu* ikuskizuna eskainiko du Kukai dantza taldeak, ekainaren 21ean, 21:30etan Chillida-Leku museoan. San Joan jaietako egitarauan txertatu dute, eta sarrerak Biterin edo *museochillidaleku.com* webgunean erosi daitezke. Autobusa ere jarriko dute, Hernanira bueltatzeko. ||

EREÑOTZU SAN ANTONIO JAIK

Suziriak kantuan jarriko ditu Ozenkik, lau eguneko festei doinua jartzeko

Gaur hasiko dira San Antonio jaiak, Ereñotzun, Ozenki abesbatzak txupinazoa botatzearekin batera. Denetik izango da, aurreneko egunean bertan: herri kirolak, bertsolariak, dantzariak, bakarrizketa...

IRITSI dira, Ereñotzuko egun seinalatuak: gaur da San Antonio eguna, eta gaur hasiko dira San Antonio jaiak, auzoan. Igandera arte luzatuko dira, lau eguneko festarekin.

Eta hasiera, Ozenki abesbatzak emango die, bere 25garren urteurrenean. Beraiek botako dituzte suziriak, eta akaso, lehertzean ohiko soinua egin beharrean, kantuan jarriko ditu Ozenkik!

Eguerdiko 12:00etan izango da hori, eta segidan hasiko da, maila haundiko herri kirol erakustaldia. Bertsolarien saioa ere izango da ondoren, eta arratsaldean, Ttarlako eta Ereñotzuko dantzarien emanaldia, eta pelota partiduak.

Eta gaurko festa goizegi ez bukatzeko, elkarrekin afaltzeko zita jarri dute frontoian, nobedade batekin borobilduko dutena: umorezko bakarrizketa eskainiko du Txikik.



Urtero bezala, emanaldia eskainiko dute gaur, Ttarlako eta Ereñotzuko dantzariak.

Txirritako ikasleen jaialdia eta herri afaria, bihar

Zita garrantzitsuak izango dituzte, bihar ere. Horietako bat da, Txirrita eskolako ikasleek urtero eskaintzen duten emanaldia, kurtso bukaerako jaialdia. Merienda eta jolasak ere izango dituzte, ondoren.

Saltsa jarriko du auzoan, harri tira erakustaldiak ere: Ereñotzuko eta Xoxokako gazteak ariko dira, tiraka.

Eta herri afaria ere, bihar bertan izango da. Txartelak, hori bai, aurrez erosi behar ziren. Guda Dantzarekin eta DZ disko jartzailearekin egingo diote bidea, asteburuari. ||

SAN ANTONIO JAIK

GAUR, osteguna

12:00etan, Ozenki abesbatzak jaietako hasiera emango die suziriak jaurtiz.

Jarraian, Herri kirolak Ereñotzuko plazan.

-Harri-jasotzaileak: Beñat Telleria eta Urrea.

-Aizkolariak: Iker Vicente eta Ruben Saralegi.

Ondoren, bertsolarien saioa: Iñaki Zelaia eta Aitor Mendiluze.

17:00etan, Ttarla dantza taldeko eta Ereñotzuko dantzarien emanaldia.

18:00etan hasita, pelota partiduak:

-Mutilak eskuz: Insausti II-Insausti I/ Arizmendi-Oiartzabal

-Neskak palaz: Macicior-Kerejeta/ Tolaretxipi-Iriondo

20:00etan, Aferia frontoian norberak etetik dakarrenarekin. Edaria, aulkiak eta mahaiak

Jai Batzordeak jarriko ditu.

Ondoren, Txikiren umorezko bakarrizketa:

40 urte ta aldapan behera niek!

BIHAR, ostirala

15:00etan, Txirrita ikastetxeko ikasleen ikasturte amaierako jaialdia.

16:30etan, Haur Jaialdia Katiluzar Guraso Elkarrekin antolatuta: merienda, ginkana...

18:30etan, Xoxoka eta Ereñotzuko gazteak harri tiran erakustaldia.

20:30etan, Maialen Argote eta Irati Inrutzun trikitilarien lehenengo saioa.

21:00etan, Herri Aferia frontoian.

Jarraian, trikitilarien bigarren saioa.

00:00etan, Denok Plazara!

00:30etan, Guda Dantza, eta ondoren DJ DZ.

ETZI, larunbata

11:00etatik 13:00era, Puzgarriak frontoian.

16:30etatik 18:00etara, Bola eta toka.

Hernaniko Bola Txapelketaren hasiera.

18:00etan, Funbox Factory bizikleta

Freestyle erakustaldia futbol zelaian.

20:00etatik 21:00etara eta 00:30etatik goizaldera arte, Laiotz taldearekin parranda.

ETZIDAMU, igandea

08:30etan, Hernaniko bistulariekin diana

bailaran barrena.

11:30etan, Pelota partiduak:

-Emakumeak eskuz: Espinar-Mendizabal/ Ruiz de Larramendi-Ruiz de Larramendi

-Gizonak eskuz: Murua-Lizeaga/ Arieta-Apeztebea

12:00etan, Sagardo Probaketa plazan,

Ur-Mia elkarrekin antolatuta. Parte hartuko

duten sagardotegiak: Elutxeta, Iparragirre,

Elorrabi, Otsua-Enea, Olaizola, Goiko-Lastola

eta Larre-Gain.

16:30etan, Gipuzkoako Aizkolarien 2garren

mailako finalaurrekoa. Gipuzkoako Herri

Kirol Federazioak antolatuta, Frontoian.

Sarrera: 10 euro.

19:00etan, Bertso jaialdia: Maialen Lujan-

bio, Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi,

Unai Agirre eta Miren Amuriza.

Ondoren, erriaren zozketa eta jaien amaiera

suziriak jaurtiz.

IRUBIDE JATETXEA

San Antonio jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Epele auzoa, 7
943 552 480 - 667 208 702

irrintzi
TABERNA

ONDO PASA!

Ereñotzu bailara, 3. Hernani
Mob: 656 374 258

EREÑOTZUKO
DENDA

Ondo pasa
San Antonio
jaietan!

Ereñotzu Auzoa, 13 • 943.33.32.20
edenda1960@gmail.com

Ondo pasa
San Antonio festetan!

GOIKO
LASTOLA

943 55 32 72 - 620 78 35 29

musika eskola
DOINU-ZALE

KARABEL ALUZZA, 4 - beheko ezberria

Ondo ibili Ereñotzuko festetan!

943 33 12 33 - 637 85 79 62

IMANOL KAMIO
musika eskola

DOINU ZALE



GAUR

Lainoak eta ostarreak tartekatuko dira goizean; baina pixkanaka ugari-tuz joango dira lainoak, eta arratsalderako zerua estalita geratuko da. Toki batzuetan, gainera, bero-lainoek zaparradaren bat utziko dute. Tenperatura, kokka bat gora: **Min.10° / Max.19°**

BIHAR

Giro iluna izango dugu bihar. Lainoak nagusituko dira, bereziki goizean eta gauean, eta euri pixka bat ere egingo du. Hala ere, ostarre batzuk ere zabaldu daitezke, arratsaldean. Tenperaturak antzeko mantenduko dira: **Min.12° / Max.18°**

(euskaletan)



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gazez: **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

ASTIGARRAGA MUTTUAI FEST

Musika protagonista gaurtik, hiru gunetan

Hogei kontzertu antolatu dituzte Muttuai Fest jaialdiaren barruan, igandera bitarte.

GAUR hasiko da Muttuai Fest jaialdia, Astigarragan, eta lau egunez, hogei emanaldi izango dira, herriko hiru gunetan: kultur etxearen kanpoaldean, Murgia Jauregian, eta Apeztegi plazan, hain justu.

Arratsaldeko 18:00etan ha-

siko dira kontzertuak gaur. Norberto Almandoz Musika Eskolako taldeak izango dira jotzen aurrenekoak, kultur etxean. Eta bertso saio musikatu ere izango da, bertan. Dama Beltza eta Latitud 43 taldeek, berriz, Murgian joko dute. ||

GAUR, osteguna

18:00, Kazkabarra, kultur etxean
18:30, Gabiltzarian, kultur etxean
19:00, Dama Beltza, Murgia Jauregian
20:00, Bertso saio musikatu, kultur etxean
21:00, Latitud 43, Murgia Jauregian

BIHAR, ostirala

18:00, Tolare, Apeztegi plazan
18:30, Eira, Apeztegi plazan
19:00, Apalaxe, kultur etxean
20:00, Maider Zabalegi, Apeztegi plazan
21:00, Itakun, kultur etxean

ASTIGARRAGA HARITZALDE ELKARTEA

Anfibio eta narrastiak ezagutzeko, bi zita

Irteera egingo dute, bihar gauean eta etzi goizean.

BI zita jarri ditu Haritzalde elkarteak, Astigarragan, anfibio eta narrastiak ezagutzeko.

Bihar gauean izango da aurrenekoa, eta Dia supermerkatuaren aparkalekuan jarri dute hitzordua, 21:30etan. Bertatik,

Hernaniko Epele auzora joango dira, anfibioak ikustera. Linterna eraman behar da.

Etzi, berriz, 09:00etan elkartuko dira Santiomendin, eta mendi buelta eginez, narrastiak ezagutuko dituzte. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

HERNANI TRATU ONEN HERRIA

Ekonomia feminista hizpide, gaur

Tratu Onen Foroa antolatu dute, arratsaldeko 18:00etan Biterin. Gonbitea luzatu diete, Hernaniko hezitzaile, guraso, eragile eta herritarrei.

DUELA bi ikasturte jarri zuten martxan, Tratu Onen Mapa. Eta aurten, Tratu Onen Foroa antolatu dituzte, Mapan parte hartzen ari direnekin, eta parte hartu nahi duten horiekin.

Gaur egingo dute ikasturteko azkeneko foroa, arratsalde-

ko 18:00etan Biterin: Zer da ekonomia pertsonen zerbitzura jartzea? Zehazki, landuko dituzte ekonomia feministaren oinarriak, ariketa praktikoen bitartez; eta aurkeztuko dituzte, bailaran martxan dauden prozesuak, gaiarekin lotuta.

Gonbitea luzatu diete, Hernaniko hezitzaile, guraso, eragile eta herritarrei, «foroan elkartu, gai garrantzitsu honen inguruan hausnartu eta tresnak eskuratzeko».

Mokadutxoak ere eskainiko dizkiete, bertaratuei. ||

HERNANI GURE ESKU

Erreferendumari buruz, solasaldia

Hernaniko Gure Eskuk antolatuta, 'Erreferenduma egizu posible' saioa izango da gaur, 19:00etan Biterin, Uribe-Etxebarria, Diez eta Zallorekin.

«HURRENGO aroari» helduko dio Hernaniko Gure Eskuk, eta hasiera emateko, gaur jarri du zita, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, Biterin: Erreferenduma egizu posible izenburupean, solasaldia antolatu du.

Izan ere, «Erreferendum lo-

tesle bat gauzatzea» aldarrikatuko du Gure Eskuk, aro berri honetan, «herritarrekin eta Herri Ekimenaren bitartez».

Gaurko solasaldian, parte hartuko dute Luke Uribe-Etxebarriak, Ramon Zallok eta Rafa Diezek. Irati Elizalde aurkez-

tuko du, eta aldibereko itzulpen zerbitzua ere izango da.

Hernaniko Gure Eskuk aurreratu du, gainera, bertan jakinaraziko dituela, emango dituen hurrengo pausoak. Bazkide kanpaina bat ere jarriko dute martxan. ||

ARALAR TABERNA

XXXV. MUS TXAPELKETA FINAL LAURDENAK

EKAINAK 13 osteguna

MANOLO - JESUS / JOXE RAMON - PACO ANTONIO - PINA / TXEMA - PLATANITO AGURTZANE - ANDER / JOXE - KIJE JONAN - ZURU / BIXENTE - JOXE

GIRO EDERRA ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8
943 33 15 06

ESPECIALISTAS EN MARISCOS

MARISCOS HERNANI

Javier Juaristi
609 674 344

Kale Nagusia, 20 - 20020 Hernani
943 555 156
mariscos hernani

GOIZ-EGUZKI TABERNA

ESKU BERRIETAN
SUKALDE IREKIA
AFARIAK, EGUNEKO MENUA
ETA PINTXOAK.
AUKERA BEGETARIANO
TERRAZA ZORAGARRIA

Atzieta kalea 10 - Hernani

LAN ESKAINTZA

Langile bila gabiltza sagastian eta upategian lanean aritzeko

Esperientzia baloratuko dugu

Prest bazuade eta interesa baduzu, bidali zure CVa helbide honetara:

lanerakoprest4@gmail.com